

Tribuko azti batzuk

Hasiera ona izan du ETBko **'Tribuaren berbak'** saioak. Zalantza bat gelditu zait hala ere: ez dakit ba Tomellosoko euskaldun haren agerpena kasualitatea izan ote zen...

Ixa taldeak esana: Txapelketako bertsoetan hauek dira oinik erabilienak: 'bezela', 'gabe' eta 'begira'

'Hitza azti' publikatu zuen 2006an. Orain **'Hizkimilikiliklik'** plazaratu du Iñaki Arranzek, hitz-jokoz gainezka datorren liburua



LAUBIDE

FELIX IBARGUTXI


Hasi da Tribuaren berbak tele-saioa ETBn. Asko gustatu zait

lehenengo alea: oso informatzaile eta bizia. Galdera honen inguruan ekin zioten: zer leku du euskarak munduko hizkuntzen artean? Lehenbizi, galdeketa egin zuten herri batean, hizkegaratik Debagoienekoa zirudiena. Eta plaza batean zutikako taula bat ipini zuten, zeretik hamarrerainoko puntuazioa zekarrena, herritarrek zenbaki bat aukeratu behar zutelarik. Gehien-gehienek oso apal puntuatu zuten euskara. Baina aurkezleak -zuzendari ere badenak, **Kike Amonarriz**ek - segituan gezurtatu zuen uste hori. Datu hotzei erreparatuta, gure hizkuntza oso altu omen dago munduko hizkuntzen ranking-een. Planetan 7.000 hizkuntza daude, eta horietatik 400ek soilik dute milioi bat hiztunetik gora. Horietako bat euskara bera dela esan liteke ia-ia, euskal hiztunak 922.000 omen dira eta. Beraz, hona hemen izenburua, Amonarrizen hitzetan: «Euskara munduko %10 hizkuntza handien artean dago». Eta datu pozgarri pare bat: wikipediako eduki-kopuruei dagokienez, euskara munduko 36. hizkuntza da; twitterra 38 hizkuntzatan dago, eta euskara da horietako bat.

Nolatan euskal herritar arruntentzako pertzepzio oker hori? **Jon Sarasua**, Huhezi-ko irakasleak, eman zituen arrazoi batzuk tele-saioan: batetik, bi erraldoiren artean bizi garela -gaztelania eta frantsesa-; bestetik, euskararen egoera, objektiboki, ez dela lasai egotekoa.

Telesaio bizia izan zen, bai. Kamerak Plaza del Solen zeudela, bat-batean 30 bat urteko gizona agertu zen, Tomelloson jaiotakoa eta, itxura denez, Madrilen bizi dena. Gai zen euskaraz esaldiak osatzeko. Harrituta gelditu nintzen. Hura kasualitatea! Gero, gaizki pentsatzen hasita, zera pentsatu nuen: gure mantxego hau ez ote zen Plaza del Solera azalduko Carlos Cid irakasleak esanda?

Hurrengo saioan, aldarrikatuko omen dute euskal berriek monumentua mezezi dutela. Eta jadanik jaki-



Goian, Kike Amonarriz, 'Tribuaren berbak' telesaioko zuzendaria; behean, Iñaki Arranz idazlea. :: EDUARDO ARGOTE

narazi dute badagoela bat. Non ote?

Zein dira errima erabilienak?

Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko **Ixa taldeak** oso proiektu ambiziotsua du: nahi du 'makina' bat egin, automatikoki bertsoak sortzeko gai izango dena. Lehen pausoak emanak ditu eta, urrats sendoak egin aurretik, bertsoak xehe-xehe aztertuko saiake- ra egin du. Gogoratu behar da lehendik ere **Bertsotarako Arbel Digitala** egin zuela IXAk.

Hain zuzen ere, 1986tik 2009ra arte egindako txapelketa nagusietako bertsoak izan du azterketa-corpusa. Zehatzago esanda, **Xenpelar Dokumentazio Zentroan** gordeta dauden 2.600 bertsoalditako 6.887 bertso

hartu ditu kontuan Ixa taldeak.

Lehenengo astean hitzaldia egin zuten **Mintzolan IXA** taldeko **Manex Agirrezabal** eta **Bertol Arrietak**, ikerketa hau nolabait hedatzeko. **'Elhuyar'** aldizkariaren bidez ere egina zegoen lehendik hedapena.

Gauza jakingarri asko dauka ikerketa horretan. Adibidez: corpus osoan gehien errepikatzen diren hiru oinak, eta, beraz, erabilienak, 'bezela', 'gabe' eta 'begira' hitzak dira. Errima (eta erri-madun hitz) erabilienak, berri, hiru hauek: -eBDGa (batera, aukera, -e da, zera, atera). -ela (bezela, itzela, horrela, dela, bestela). -eNMa (dena, barrena, pena, onena, problema).

Kartzelako ariketan erabiltako neurriak ere aztertu dituzte. Neurri luze eta berezietarako joera, espero be-

zala, geroz eta handiago da. Hala, 2001. urteko txapelketatik aurrera (corpuseko datuen arabera) ez da zortziko handian kantatu, eta 2009. urteko txapelketan hamarrereko handia ere oso gutxi erabili zen (% 3 soilik).

Azterketaren beste emaitza bat: euskara batuaren erabilera gora eta gora egin du txapelketetan zehar. Eta ondorio bitxi bat: bertsoetan gehien erabiltzen diren 500 hitz horiek ezagututa, euskara-ikasle batek bertsoen %70 ulertuko luke teoriarik. Baina, jakina, Arrietak eta Agirrezabalek segituan argitu zuten: hori teoria besterik ez da. Hitz solteak jakinda ez da hizkuntza gutziz ezagutzen. Sintaxia izeneko koska handi bat dago erdian, besteak beste.

Hiru erre, lau bokal, dena hitz-joko

Iñaki Arranz gasteiztarrak **'Hizkimilikiliklik'** liburua plazaratu du, hainbat hitz-joko dakarrena. Hamar urtetik gorako haur eta gaztetxoentzako bilduma batean eman du argitara Ibaizabal etxeak.

Aurretik beste liburu bat ezagutzen genion, hura teorikoagoa: **'Hitza azti'** (Alberdania argitaletxea). Irudikatzen dut gizon hau gauero burua nekatzen, beti adi, hitz-jokoa nola osatuko. Liburuko ale batzuk miresgarriak dira benetan. Benetako sortzaile ageri zaigu Arranz.

Ikus aurreneko orrialdeko pitxia, 'Esan eta egin' izenburuaren azpian datorrena:

Letra larri bat
bi hitz
hiru erre,
lau bokal,
hamar kontsonante,
hamabi letra ezberdin
(ez, hamahiru letra ezberdin),
hamasei letra xehe
(hamasei minuskula)
hamar lerroko poema batera-
ko.

Beste pasarte batean palindromoei buruz dihardu. Jakingo duzue zer diren palindromoak: aurreko atzera eta atzeko aurrera irakurrita hots bera duten hitzak edo hitz multzoak. Hona hemen Arranzaren pasarteak: «Palindromoetan ari ginen! **Irri** urduria egin dut. Pentsatzen nuena baino **era are** larriago batean **ari dira** hitz eta esaldiak **oro** aldrebesten. Hala ere, ezin **esan ase** nagoenik».

fibargutxi@diariovasco.com